

JON GOTZON ETXEBARRIA MARTIN

Bilbo, 1996-V-31

Bibliografia arloan Juan Anjel izenerakin ezagutuagoa izan arren, azken urteotan erabili zuen Jon Gotzon aukeratu dut nekrologiaren izenburu honetan. Eta ez da oraintsu euskaldun izatera iritsi zelako erdaldun jaiotako idazle eta itzultzaile santurtziar hau, 14 urtekin, 1948an, euskara meneratze beharra sentitu baitzuen Arratian, Gaztelu-Elexabeitiko seminarioan zegoenean herritarrekin harremanak izan zituen unean. Barne mui-neraino sartu zitzaion euskararen ziria edo hobe, behar bada, ezpata, min egiten baitzion euskarak zuen egoerak eta desabantailak inposatutako erderaren ondoan. Fededun zen orduan eta beti izan da, eta geroztik “euskaldun fededun” lemapean bizi izan da 62 urtekin Gernikan hil arte.

Jon Gotzonen biografia idaztea ez da izatez zaila. Ezkondu zen urte berean argitaratu zuten Xabier Kintanak eta Joseba Tobarrek *Euskaldun berriekin euskaraz* liburua (1975) eta hor ematen dizkigute euskaldun berri baten euskararekiko xehetasunak. Eta fedearrekikoak ere, ordura arte euskararen defentsarengatik pairatutakoak, esaldi honetan laburtu zien Jon Gotzonek: “Jainkoa dut lagun ta noren bildur naiteke?” Horrek ematen dit hausnarketa hau egin beharra: biografia fisikoa egitea beharrezkoa baita, izpirituarenari, Jon Gotzonen arima, gogoa eta sentimentuenari emango nieke lehentasuna. Hau da nabaritzen dena Gernikako *Deiadar* eta *Aldaba* aldizkarietan egin zizkioten elkarriketetan, eta hil ondoren Segundo Oar-Arteta adiskideak, deitura bereko abade euskaldun sutsuen lobak, azken aipatu aldizkarian argitaratzen duen lanean. Hor ditugu biografia izpiritual baten lekuko Juan San Martinek *Escritores euskericos* liburuan ematen digun bibliografia, Jon Bilbaok biltzen duena, Azkue Bibliotekan dauden liburu eta libuskak, eta abar.

Santurtzin jaio zen 1934.eko otsailaren 7an. Otsoen hilak markatu zuen Jon Gotzonen bizitza: umiltasun handiarekin, baina jakituria handiagoarekin, behar bada, euskararen aurkako otsoen kontra lan egin zuen Jon Gotzonek. Eta aurtengo otsailaren 17an hil zen Gernikan. Aita, Federico, Ortuellakoa zen, pelotari famatua diotenez. Ama, Felisa, santurtziarra, erdaldunak biak. Zazpi seme-alabetatik hirugarrena izan zen Juan Anjel izenaz bataiatu zutena. Portugaleteko Santa Maria izeneko kolegioan egin zituen lehen ikasketak. Hamairu urte etxe inguruan bete ondoren, orduan beste askok egiten zuen bezala, Gaztelu-Elexabeitiko seminariora joan zen 1947an. Arratiako herri horretan eta gero 1950ean Gasteizko seminariora joan zenean egin zituen lehenengo bost urteak, zeintzuetan latina eta grekoa ikasi zituen. Ikasle ona omen zen, gehien bat gramatika eta latin ikasketetan. Latinezko klasikoak irakurri eta ondo meneratu zituen orduan. Grekoa ez horrenbeste, berak esan zidanez; Federico Krutwig-ekin “Jakintza Baitha” akademiaren hobetu zuen zekiena.

Teologiaren 2. ikasturtera arte jarraitu zuen Gasteizko seminarioan. 1956an utzi zuen ikastetxe hura. Ordurako euskaldundua zen, bere kabuz Zabala eta Zamarriparen

gramatikak erabiliz eta Cortes Manterolaren *Método autodidáctico para aprender el vascuence* (1935) liburuarekin baliatuz. Seminarioan euskarari egiten zizkioten erasoak jasan ezinik utzi zuen seminarioa. Bereak dira hitz hauek: “itzalezko zauriak hartu nitun arimaren barnean”. Euskararen etsaiek ezpata zorrotzarekin egindako zauriak ez zitzaizkion osatu bizi guztian. Euskaltzaindiaren bileretara nirekin autoan joaten zenean, behin eta berriz aipatzen zidan Gasteizko egoera eta samindura. Burutik kendu ezinezkoa zen, benetan. Eta jasarpen horrek bultzatu zuen betirako erabakia: “Latin hizkuntza (neure kutuna) —zioen— bigarren aldean utzi beharra” ikusi nuen. Eta hala egin zuen 1956tik aurrera.

Latina eta grekoa irakasten ari izan zen hurrengo urteetan Algortan eta Bilbon. Orduan ezagutu nuen nik, 1957an, Verdes-Atxirikaren liburudendan. Mikel Zarate ere egun berean ezagutu nuen. Bezero ona zen gure Jon Gotzon, euskarazko liburuen erostera joaten zen eta, salgai zeudenak eta ezkutuan gordetzen zituztenak. Gogoan daukat Orixeren *Urte guziko Meza-Bezperak* liburua erostera joan nintzela egun hartan. Orixe zen orduan Jon Gotzonen eredia latinaren gramatika eta joskera aztertzeke euskara on baten bidean. Eta horretaz idatzi zigun zerbait Etxebarriak.



Bilboko San Antongo parrokoa zen Klaudio Gallastegirengan aurkitu zuen Jon Gotzonek euskaraz idazten hasteko babesa. 1959an hasi zen *Oleriti* bilduman poesiak agertzen. Baina San Antongo Katekesiaren lege-laguntzarekin argitaratu zituen 1965etik aurrera klasikoan itzulpenak, euskal klasikoan lan eta ikerketak, erlijozko gaiak, hiztegiak eta *Apuntes para clases de vascuence*. Eten gabe jarraitu zuen lanean eta Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1966.eko azaroaren 25ean. Orduan izan nituen nik berriz harremanak Jon Gotzonekin, Portugaleteko ikastola sortzeko asmoetan zebilenean, urte berean sortu baitgenuen guk Gernikan Seber Altube Ikastola. Ikastoletako andereñoen aseguru pribatuaren ardura neraman eta hau izan zen lehen elkarrizketetako zioa.

Pontevedrako San Salvador de Poion jaiotako Pilar Prieto anderearekin ezkondu zen Jon Gotzon 1975ean. Urte horretan hasi zen ikasturtean etorri zen Jon Gotzon Gernikara, Seber Altube ikastolara maisu gisa. Emazteari euskara irakatsi eta galegoa ikasi zuen gure maisuak. Galegozko poetak itzultzera ekin zion orduan. Ainhoa alaba jaio zitzaien 1976an, Jon Gotzon Bermeoko ikastolara joan zenean. Han eman zituen bederatzi urte, Gernikako institutura euskara eta euskal literatura irakastera etorri arte (1984-1993). Bermeon zegoenean, Deustuko Unibertsitatean burutu zuen Euskal Filologiako lizenziatura (1978-1983) eta titulu horrek eman zion instituturako sarrera. Gernikako udalean zinegotzia ere hautatua izan zen nirekin batera 1979an.

Arteriosklerosis gaisoak jo zuen 1984an. Basurtuko ospitalean egin zioten ebakuntza bat 1990ean, lur jota gelditu zelarik, eta han bisitatu nuen. Bihotzeko mina ere baizeukan eta ondorioz asko zaindu beharra. Baina hala eta guztiz ere Euskaltzaindiaren bileretara etortzeko beti zegoen prest. Literatura batzordeko kidea zen eta Azkue Biblioteka batzordekidea ere (1987). Ikusten duzuenek lankide eta benetako adiskidea izan nuen. Parkatuko didazue, bada, biografia labur honetan nire ikuspegia eta agerpena sarriegi ematea.

Jon Gotzonen idazlanean eta ikerketei buruz zer esan? “Dirauket” eta “E. tar J.A.” izenordearekin argitaratu zituen olerki eta bestelako idazlan batzuk *Oleriti*, *Euskera*, *Zeruko Argia*, *Karmel*, *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkarietan. Baina lanik mamitsuenak bere kontura eta berak inprimatuta eman zizkigun. Eman, gainera, zentzu zabalean, Euskaltzaindikoko bileretan banatzen baitzizkigun kaleratutako liburuskak. *Excerpta* izeneko aldizkariaren 40 ale atera zituen. Eta tarteka inprimatzen zituen greko eta latinezko klasikoan itzulpenak, baita Espainia, Frantzia, Ingalaterra eta Europako beste hizkuntza batzuetakoak ere. Euskal idazleak ere aztertu zituen: Añiibarro, Kandido Basabe, Baztarrika, Chourio, Mendiburu, Orixe, Tartas, Aresti eta abar. Baina gehien maite zituen bi arlo bereiztuko nituzke: lehen aipatutako kristau fedearen adierazpenak (Augustin eta Juan Krisostomo santuak, Liturji-gorazarreak, Gurutz bidea, Batikanoko II. Batzarraren Agiriak, Paulo VI.aren *Humanae vitae* enziklika) eta olerkietan isuri zigun bere barneko izpiritua eta gogoa: *Basoko lorea*, *Ezpatat zorrotza*, *Irrintzi isila*, *Laino-odoletan*, *Lo eta amets*, *Maitale galdua*, *Soin-gogoak* izenburuko liburuskak.

Seminarioan euskararen aurkako giroagatik jasan zuen zauria osatu gabe izan zuela bizi guztian esan dut. Ariman pairatzen zuen minbizi horrek bultzatu zuen nik gehien maitatzen dudana Jon Gotzonen liburu hau idaztera: *De vita exemplariorum presbyterorum vasconum* (1989). Euskararengatik crasoak sufritu zituzten 20 abadeen bizitak bildu zituen liburu horretan. Eliza eta euskara dira, hain baten, defendatzen zituenak. Euskaldun fededun hain zuzen.

Ez nuke amaitu nahi anekdota batekin baliatu gabe. Ostiral Santuko arratsaldea zen, duela sei-zortzi urte. Bitoriano Gandiaga etorri zitzaidan Jon Gotzon Etxebarria non bizi zen galdetuz. Esan nion. Etxeko txirrina jota, Jon Gotzon atean agertu zenean, txaloka ekin zion Gandiagak honako hau esanez: "Pelotariak, bertsolariak eta abarrek jendearen txaloak hartzen dituzte gure plazetan. Zuri ez dizu inork halakorik egin eta hemen natorkizu zor zaizun txalo hau eskaintzera". Hara hor omendua, hara hor poeta. Gandiagarekin batera guk ere txalo bero bat zor diogula Jon Gotzon Etxebarriari uste dut. Hala biz.

Jose Antonio Arana Martija